

II.—Apaiz gazte Juan Gorostiaga jaunak irakuñi digu alako bere *miscelanea* bat. Bertan esaten digu *urê* meatzaren izena dirudila. *Urê-gorri* esan oi da, erderazko *oro*, *urê-zuri* plata.

III.—Azkue jaunak bere *Modismos* irakuñi digu ta urêngo batzarëtarako beste gai batzuek utzirik otoitzez amaitu da batzaráldia.

**Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian.
1931-ko Lotazilaren 22'an.**

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta Ormaetxea urgazlea.

Otoitz egin da.

I.—Iztegiko lanetan jardun degu asti luzean.

II.—Aita Intzak irakuñi dizkigu Aita Ikaztegietak bildutako itzak.

Besterik izan ez da otoitzez amaitu degu batzaráldia.
